

DEKRETU-PROIEKTUA, Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko helburuak eta neurriak ezartzeko dena

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkien, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa; Aizkorri-Aratz eremua (ES2120002) ere tartean zegoen.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45. artikuluek ezarritakoari jarraiki, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuko BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta eremuok behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen araberrako eskakizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Dekretu honen bidez, Aizkorri-Aratz KBE izendatu, eta hura kontserbatzeko helburuak eta neurriak ezartzen dira. Baina eremu horrek Naturagune Babestuen tipologia bikoitza biltzen du, Parke Naturala eta Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremua baita. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori antolatze mekanismoak koordinatu egin behar dira, eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplikatu daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute.

Parke Naturalen kasuan, bi tipologia arautzen dituen dokumentu bakarraren legeaurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura





Baliabideak Antolatzeko Plan (NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta EKPZ batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, bi baliabide horiek Naturagune Babestuaren (NB) bi tipologiaren premiak betetzeko baliagarriak izan daitezke, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren bi tipologiaren deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKPZrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua) eta neurriak foru-organismoek dagozkie (NKLTBaren bigarren paragrafoko 22.5 artikulua). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAA-n argitaratu behar izaten dira beti.

Gaur egun, koordinazio hori ez da posible izango. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzea atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKPZ dokumentua EAEko Natura Kontserbazeko Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso behar luke: batetik, Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Urkiola Parke Naturalaren Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea.

Horregatik, aldez aurreko onespina jasotzen duen Dekretuaren helburua Aizkorri-Aratz Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremu izendatzea eta Habitat Zuzentzarauaren 6. artikulua horrelako KBEetarako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea baino ez da; beraz, 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroago utzi da, azken xedapenetan lehenean jasotakoarekin bat.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentzarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Aizkorri-Aratz sakon aztertu da,

eskala egokian irudikatu da Batasunaren intereseko habitaten banaketa eta haien kontserbazio-egoera ebaluatu da. Horretaz gain, gune horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aizkorri-Aratz eremuan, gutxienez, Batasunaren intereseko 24 habitat mota topatu dira, eta horietako bostek lehentasunezko izaera dute. Halaber, eremu horretan, gutxienez, 43/92/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean biltzen diren bi flora-espezie daude, II eta IV. eranskinetan biltzen diren 11 fauna-espezieak, II. eranskinean baino ez diren biltzen sei espezie, eta IV. eranskineko 19 espezie. Nabarmenezkoa da, 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean biltzen diren 20 hegazti-espezieak daudela, gutxienez. Aizkorri-Aratz eremuak duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Horretaz gain, xehetasun-lanei esker lortu diren habitat moten azalerari buruzko datuak, zenbait kasutan, ez datoz bat Europako Batzordera –Euskal Autonomia Erkidegoko tokien zerrendaren proposamenarekin batera– igorri eta jakinarazitako datuekin. Gainera, xehetasun-azterketari esker habitat jakin batzuen interpretazioa zuzentzeko aukera izan da. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, inprimakian adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

KBE hori behin betiko mugatzeko, lan-eskala hobetu da; gainera, zabaldu egin da, izen bera duen Parke Naturalarekin bat etortzeko, baina horrek ez du aldaketa nabarmenik eragin, ez habitat naturalen azalaren irudikapenean, ezta Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioetan ere. Guztiz eraginkorra izateko, KBEa zabaltzeak Europako Batzordearen Erabaki bidezko alde aurretiko balidazioa eskatzen du; beraz, eremuaren mugaketaren kartografiak eremu hori mugatzeko bi lerroak jasotzen ditu. Horrela, mugaketa berriaren eraginkortasuna eta zabaldutako eremua kontserbatzeko neurrien ezarpena Dekretu honen Azken Xedapenetan Bigarrenetan jasotako baldintzapean daude.

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraiki. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak



helarazita horretarako prestatu den web-orrialdearen bitartez (<http://www.euskadi.eus/natura2000>); eremuari buruzko informazioa eguneratuta egongo da beti webgune horretan.

Aizkorri-Aratz kontserbatzeko baliabideak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraiki landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan jasotako eta eremuan topatutako habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.5. artikuluan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2015eko ...aren ...(e[a])n egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2120002) izendatzen da, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetan.

2.- KBEaren mugaketa Dekretu honi atxikitako I. eranskinean jasotakoa da. Eranskin horrek Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako Batasunaren Garrantzizko Lekuen mugak ez ezik, eguneratutako mugaketa ere jasotzen du, azken horrek eremua handitzea baitakar.

3.– II. eranskineko Kontserbazio Bereziko Eremuaren kontserbazio-helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa onartu dira, Dekretu honen 3. artikuluan ezarritako edukia barne.

2. artikulua.– Helburua.

1.- Arau honen xedea honako hau da: KBEan bermatzea Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek

ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– KBEan, honako hauek ezarritako araubide orokorra aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaria eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.- Kontserbazio-neurriak.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.4. artikuluekin bat, II. Eranskinak eremuari buruzko informazio ekologikoa eta izendapena argudiatzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak ez ezik, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbaziorako araudiak eta jarraipen-programa ere jasotzen ditu.

4. artikulua.- Funtsezkoa ez den berrikuspena edo aldaketa

Eranskin horien berrikuspena edo aldaketa, zeina ez baita funtsezkoa, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentariaren 11. eta 17. artikuluetan eta 2009/147/EEE Zuzentariaren ezarritakoarekin bat. Izan ere, helburua da kontserbazio eta kudeaketa moldaerraz, etengabe eta malgu baterantz joatea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarritakoari jarraiki; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Dekretu honi ezarri beharreko zehapen-araubidea, honako hauek arautatutakoa izango da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal



Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Dekretu hau onartzen denean, Parke Naturalaren eta KBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta Parke Naturalaren NBAPa eta EKZPa Naturagune Babestuen bi tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakar bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako mugei dagokienez, Batzordeak KBEa zabaltzeko erabakia hartu izanaren berri ematen duen Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren titularraren Agindua EHAAr argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean. Orduan izango dira eraginkorrak Dekretu honetan aurreikusitako kontserbazio-neurriak. Ordura arte, eremu horretan, 92/43/EE Zuzentarauaren 6.3 eta 6.4 artikuluek ezarritako prebentzio-araubidea aplikatuko da, baita Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikuluan 4., 5. eta 6. atalek ezarritakoa ere.

Hirugarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, aurreko xedapenean KBEa zabaltzeko eremurako aurreikusitako araubidea izan ezik.

Vitoria-Gasteiz, xxxko XXXaren XX(a).
Lehendakaria,

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua

I. ERANSKINA
KARTOGRAFIA

II. ERANSKINA
AIZKORRI-ARATZ KBE-ARI DAGOZKION INFORMAZIO EKOLOGIKOA,
KONTSERBAZIO-HELBURUAK, KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-
PROGRAMA